

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2024ko urtarrilaren 29ko Alkatetzaren 37. Ebazpenaren laburpena. Ebazpen horren bidez, 2024rako Zigoitiko udalerriko kultura-, kirol- eta gizarte-jardueren antolaketa norgehiagoka-prozeduraren bidez ordaintzeko diru-laguntzen deialdia egiten da

BDNS(Identif.): 742539.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazioanalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/742539>).

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu-base Nazioanalean kontsulta daiteke (<https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/ge/es/convocatorias>).

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke:

— Zigoitiko Elkartearen Udal Erregistroan legez eratu eta inskribatutako irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuak (hala nola, elkarteak, taldeak, kultura-, kirol- eta/edo gizarte-fundazioak).

— Era berean, irabazi-asmorik gabeko erakundeak izan daitezke diru-laguntza hauen onuradun, baldin eta Zigoitiko udalerrian jarduten badute, nahiz eta egoitza soziala udalerritik horretan ez izan. Erakunde horiei Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzeko eskatuko zaie.

— Zigoitiko kontzejtuak.

Bigarrena. Helburua

Diru-laguntzaren helburua da Zigoitiko udalerrian kultura-, kirol- eta gizarte-jarduerak antolatzearen ondoriozko gastuak finantzatzen laguntzea, beren izaeragatik eta behar bezala arazoituta udalerritik kanpo egin behar direnak izan ezik.

Kultura, euskara, aisia eta kirol arloetako jarduerak diruz lagunduko dira, honako programa hauei lehentasuna emanez:

— Zigoitia udalerrian gizarte-ongizatea sustatzen dutenak.

— Euskararen erabilera bultzatzen eta sustatzen dutenak.

— Herritarren parte-hartzea bultzatzen dutenak.

— Udalerria ezagutzera ematen dutenak.

— Kultura eta kirol-jarduera orokorra eta bereziki bertakoa sustatzen dutenak.

— Berdintasuna eta genero-rolen haustura bermatzen duten programak eta ekintzak sustatzen dituztenak, eta egoera ahulean edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboaren parte-hartzea bermatzen dutenak.

— Bertako tradizioak berreskuratzen laguntzen dutenak.

— Ingurumenarekiko sentsibilizazioa sustatzen dutenak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak 2022ko urriaren 17an onartutako eta 2022ko abenduaren 30eko 150. zenbakiko ALHAOn argitaratutako kultura, kirol eta gizarte jardueren antolaketa ordaintzeko diru-laguntzak emateko berariazko ordenantzan jasota daude.

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean izango da, aurkeztutako eskabideak alderatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta, hurrengo puntuan ezarritako mugarekin, aipatutako irizpideak aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak esleituko dira.

Laugarrena. Laguntzen zenbatekoa

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 334.481.001 aurrekontu-aplikazioari "jarduera soziokulturaletarako diru-laguntza gisa" eta 341.481.000 aurrekontu-aplikazioari "kirol-jardueretarako diru-laguntza gisa" 2024rako aurrekontuan gozatzeko zaie.

Deitu beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa 334.481.001 aurrekontu-aplikazioan eta 341.481.000 aurrekontu-aplikazioan indarrean dagoen aurrekontu-kreditua izango da, 2024ko ekitaldiko aurrekontuarekin bat etorriz; zehazki, 18.000,00 eta 10.000,00 euro, hurrenez hurren.

Udalak diruz lagundu daitekeen programaren kostu osoaren ehuneko 80ra arteko diru-laguntza eman ahal izango du.

Hala ere, udal honek tramitazio berezia eman ahal izango du udal-interes bereziko programa jakin batzuetarako, eta programaren kostuaren ondoriozko defizitaren ehuneko 100era iritsi ahal izango da.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskabideak eta urteko programetarako deialdiaren zazpigarren puntuan aipatzen diren agiriak aurkezteko epea 2024ko apirilaren 1ean amaituko da.

Jarduera puntualetarako eskabideak aurkezteko gehieneko epea programatutako jarduera hasi baino hilabete lehenago izango da, eta betiere 2024ko azaroaren 1a baino lehen.

Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Eskabide ofiziala, udalak emana.

Formulario ofiziala. Formulario bat bete beharko da programa bakoitzeko (gehienez ere, lau programa).

Ordenantzaren 8. Artikuluan zehaztutako dirulaguntza emateko irizpideak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

Egoitza soziala Zigoitiko udalerritik kanpo duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek kasuan bakarrik, estatutuen fotokopia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean edo Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan legez eratu eta inskribatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa. Betekizun horretatik salbuetsita daude aurreko deialdietan aurkeztu duten erakundeak, estatutuetan aldaketaren bat egon ezean.

Seigarrena. Justifikazioa

Dirulaguntza jasotzen duten erakundeek 2025ko urtarilaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dute justifikaziorako dokumentazioa:

Memoria-likidazioa, bertan ondorengo datuak jasota:

Jarduera: helburuen deskribapena eta ebaluazioa, erabilitako giza-baliabideak eta baliabide materialak, jarduera garatutako lekua, denboralizazioa (datak, ordutegia).

Hala badagokio, genero berdintasuna lortu izanaren edukiaren analisia eta ebaluazioa.

Hala badagokio, jarduera euskaraz garatu dela egiaztatzea.

Hala badagokio, udal programetan parte hartu izana egiaztatzea.

Parte-hartzaile kopurua, sexuaren arabera banatuta, egiaztatzea.

Likidazio ekonomikoa: gastuak eta diru-sarrerak zehaztuta.

Programan parte hartzea sustatzeko egindako zabalkunde publikoa egiaztatzen duen dokumentazioa. Ez dira diruz lagunduko publiko orokorrari zuzendutako jarduerak, programaren eskaintzan publizitatea egin izana egiaztatzen ez bada.

Diruz lagundutako gastuen ziurtagiriak, fakturen eta ordainagirien kopien bidez.

Programen aleak, halakorik badago. Bertan, Zigoitiko Udalaren babesletza aipatuko da.

Hala badagokio, erakunde onuradunaren ordezkariaren ziurtagiria, lekualdatu diren boluntarioak, haien akreditazio profesionala eta lekualdatzeko beharra jasotzen dituen, datak eta egindako ibilbidea zehaztuta. Bidaia norberaren ibilgailuan egiten bada, horren matrikula eta egindako kilometro-kopurua adieraziko dira; eskatutako dieten eta bidaia-gastuen likidazioa ere jasoko da.

Ondategin, 2024ko otsailaren 5ean

Alkatea

JAVIER GORBEÑA GARCÍA